



II. ATALA
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Basauriko Udala

Iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdiaren oinarri ezpezifikoak, 20/2021 legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietatik eratorritakoa eta administrazio bereziko eskalako azpieskala teknikoari dagokiona, erdi mailako teknikari klasea, A taldea, A2 azpitaldea. Euskara eta Herritarrekiko Harremanetarako Ataleko Teknikaria.

Alkatea jaunak 4031/2022 Dekretua eman du, 2022ko abenduaren 6an. Honelaxe dio bertako testuak:

Lehenengoa: Euskara eta Herritarrekiko Harremanetarako Ataleko Teknikariaren plaza bat (1) txanda irekiz hautatzeko deialdia onartzea. Lanpostu horiek Administrazio Bereziko eskalako azpieskala Teknikoari dagozkio, Erdi Mailako Teknikari klasea, A taldea, A2 azpitaldea, 233. KOD.

Bigarrena: Euskara eta Herritarrekiko Harremanetarako Ataleko Teknikariaren plaza txanda irekiz eta Lehiaketa-sistemaren bidez betetzeko hautaketa-prozesua arautuko duten oinarri espezifikoak onartzea. Lanpostu horiek Administrazio Bereziko eskalako azpieskala Teknikoari dagozkio, Erdi Mailako Teknikari klasea, A taldea, A2 azpitaldea, 233. KOD.

Hirugarrena: Deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agindua ematea, bai eta deialdiaren laburpena Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agindua ere.

Laugarrena: Deialdia onartzen duen dekretuaren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, bi hilabete epean, Bilboko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, edo, aukeran, berraztertze errekurtsoa, hilabete epean, ebazpena eman duen organo beraren aurrean, uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitakoaren arabera.

Basaurin, 2022ko abenduaren 7an.—Alkatea, Asier Irigorri Basaguren



IRAUPEN LUZEKO ALDI BATERAKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO SALBUESPENEZKO DEIALDIAREN OINARRI EZPEZIFIKOAK, 20/2021 LEGEAREN 6. ETA 8. XEDAPEN GEHIGARRIETATIK ERATORRITAKOIA ETA ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALAKO AZPIESKALA TEKNIKOARI DAGOKIONA, ERDI MAILAKO TEKNIKARI KLASEA, A TALDEA, A2 AZPITALDEA. EUSKARA ETA HERRITARREKIKO HARREMANETARAKO ATALEKO TEKNIKARIA

1. Deitutako plazak

Administrazio Bereziko eskalako azpieskala Teknikoko plaza baten (1) deialdia egiten da, Erdi Mailako Teknikari klasea, Euskara eta Herritarrekiko Harremanetarako Ataleko Teknikaria, txanda irekiz, honako banaketa honen arabera:

Plaza kopurua	Lotutako lanpostu kopurua	Ezaugarriak (hizkuntza-eskakizuna, derrigortasun-data, Destino Osagarria, Berariazko Osagarria, betekizun espezifikokoak)
1 KOD 8004	KOD 233 Euskara eta Herritarrekiko Harremanetarako Ataleko Teknikaria	Nahitaezkoa: HE 4. HE-TG Taldea: A Azpitaldea: A2 Destino Osagarria: 21 Bereiazko Osagarria : 22.337,01 euro

Funtzioak:

- Saileko prozesuen edo espedienteen normalizazioa diseinatzea, kontrolatzea eta ebaluatzea.
- Sailean kalitatea ezartzeko eta kontrolatzeko prozesuak kudeatzea.
- Saileko proiektu, programa eta zerbitzuak kontrolatzea eta ebaluatzea.
- Udalaren zeharkako proiektuetan parte hartzea, Udaltzarak izendatuz gero.
- Ardurapeko prozesuetan adierazleak definitzea eta kontrolatzea.
- Sailean zehaztutako hobekuntza-planak gauzatzea.
- Ardurapeko prozesuetan eta jardueretan, adierazleak kontrolatzea eta hobetzeko aukerak identifikatzea.
- Prozesuetan parte hartzen duten kideak koordinatzea, eta prozesuak behar bezala burutzen direla ziurtatzea.
- Norberaren lanpostuarekin lotutako txosten eta memoria teknikoak prestatzea.
- Hirugarrenetik kudeaketa-lanak egitea lanpostuari dagozkion gaitan.
- Errekurtsoak eta erreklamazioak ebaztea, Administrazio Orokorreko teknikarien kasuan.
- Prozesuak eta dokumentuak ziurtatzea, behar izanez gero.
- Arloari lotutako prozesuetan parte hartzea, Arloko buruek zehazten duten heinean.
- Arloko buruak esleitutako programen kudeaketa ekonomiko-finantzarioa egitea.
- Udalak eskatzen eta/edo ematen dituen balizko dirulaguntzak kudeatzea ardurapeko gaitan.
- Administrazioaren jardunaren ondoriozko testuak itzultzea eta zuzentzea.
- Udalak behar duen testu edo hizkuntza orean azpikontratazioak kudeatzea.

2. Parte hartzeko baldintzak

2.1. Plazak lortu nahi dituztenek oinarri orokorretako 2. paragrafoan izaera orokorrekin ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

2.2. A2 azpitaldeko plazak hautatzeko deialdietan izena emateagatik tasaren zenbatekoa 18,00 euro da.

2.3. Oinarri orokorretako 2. h) atalean xedatutakoari dagokionez, Gradua, Diploma, Ingeniaritza Teknikoa edo Arkitektura Teknikoa titulazioa edo baliokidea eskatzen da.



3. Lanpostuak esleitzeko berariazko betekizunak

3.1. Deialdi honen xede den plazei lotutako lanpostuan, teknikari gaituaren hizkuntza-eskakizuna (4. HE-TG) bete beharko da. Lanpostuaren baldintza da euskara jakitea.

Betekizun horiek oinarri orokorren 2. eta 7. oinarrietan ezarritakoaren arabera egiaztatu beharko dira.

4. Hautaketa-prozesua

Hautaketa-sistema lehiaketakoa izango da, eta bi (2) zati izango ditu:

4.1.1. Lehen zatia, lehiaketa: hautagaiek eskabidean alegatu eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira, autobalorazio-sistemaren bidez, eta bakoitzari dagozkion puntuak esleituko zaizkio, merezimenduen baremoaren arabera. Deialdia arautzen duten oinarri orokorretan puntuazioaren arabera ordenatutako instantzia kopurua bakarrik baloratuko da. Lehiaketa ez da baztertzaila izango, baina beharrezkoa izango da puntu guztien %25eko gutxieneko puntuazioa lortzea, oinarri orokorretako 9.1 oinarrian ezarritakoaren ondorioetarako.

4.1.2. Bigarren zatia, euskara-proba: nahitaezkoa eta baztertzaila hautagaiarentzat. Euskararen Teknikari gaituaren hizkuntza-eskakizuna (4. HE-TG) egiaztatzea izango da proba.

Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan egiaztatuta dagoenean, ez da egiaztatu beharko. Horretarako, parte hartzaileak baimena emango dio berariaz Basauriko Udalari erregistro horretan egiazta dezan. Hala ere, erregistro horretan jasota ez dagoen baina azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuaren arabera baliozkotutako beste edozein euskara titulu edo -ziurtagiri aurkeztu egin beharko da (297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskara egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliozkotzeari eta horiek Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeari buruzkoa).

Teknikari gaituaren hizkuntza-eskakizuna (4. HE-TG) egiaztatu nahi dutenek, apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan xedatutakoaren babesean (47/2012 Dekretua, euskaraz egindako ikasketa ofizialak onartzeko eta euskarazko hizkuntza-titulu eta -ziurtagirien bidez egiaztatetik salbuestekoa), dagokion ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko dute. Ondorio horietarako, ETZEB Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan baliozkotu diren salbuespenak baino ez dira onartuko.

5. Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa

5.1. Lehiaketaren kalifikazioa merezimenduen baremoaren arabera esleitutako puntuen baturak zehaztuko du (I. eranskina).

5.2. Bigarren zatia gai edo ez-gaitzat joko da.

5.3. Izangaien azken kalifikazioa hautaketa prozesu osoan lortutako puntuazioen baturak zehaztuko du.

6. Lan-poltsa

Hautaketa-prozesu honetatik ez da enplegu poltsarik sortuko.

7. Lehentasun-klausula aplikatzea

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua aplikatzeko, artikulua horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula ez da aplikatuko, Administrazio Bereziko eskalako azpieskala Teknikoan, Erdi Mailako Teknikari klasea, A taldea, A2 azpitaldea, emakumeen azpiordezkaritzarik ez dagoelako.



I. ERANSKINA

MEREZIMENDUEN BAREMOAK

Abenduaren 28ko 20/2021 Legearen seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarrietan xedatutakoaren arabera:

a) Esperientzia: gehienez 80 puntu

a.1. Esperientzia orokorra: Esperientzia orokorra da edozein administrazio publikotan emandako zerbitzuen esperientzia, deialdia egin duen administrazioan barne, kidego, eskala, azpieskala, aukera, espezialitate edo talde profesional parekatuei atxikitako lanpostuetan, baldin eta kidego, azpieskala, aukera, espezialitate edo talde profesional horiek hautaketa-prozesuaren xede badira, edozein izanik ere horien sorburua, funtzionario-izaera edo lan-harremana. Gehienez 60 puntu emango dira, baremo honen arabera:

— Edozein administrazio publikotan egindako zerbitzuengatik, deialdia egin duen administrazioan barne, Administrazio Bereziko eskalako azpieskala Teknikoan (Erdi Mailako Teknikari klasea, A taldea, A2 azpitaldea, Euskara eta Herritarrekiko Harremanetarako Ataleko teknikaria edo funtzionalki antzekoak) lan egindako egun bakoitzeko 0,0274 puntu.

a.2. Esperientzia espezifiko: Hautaketa-prozesuan deitutako lanpostuak betetzeagatik deialdia egin duen administrazioan egindako zerbitzuei 20 puntu emango zaizkie gehienez, berariaz, bereizita eta esperientzia orokorraren balorazioaren osagarri gisa, baremo honen arabera:

— Deialdia egin duen administrazioan Administrazio Bereziko eskalako azpieskala Teknikoan (Erdi Mailako Teknikari klasea, A taldea, A2 azpitaldea, Euskara eta Herritarrekiko Harremanetarako Ataleko teknikaria edo funtzionalki antzekoak) egindako zerbitzuengatik, lan egindako egun bakoitzeko 0,00914 puntu.

Zenbatzeko, erakunde bakoitzean lan egindako aldiak batuko dira. Nolanahi ere, lanaldipartzialean edo murriztuan lan egindako aldiak lanaldi osoan lan egindakotzat hartuko dira. Ezin izango da egun berean kontratu/izendapen bat baino gehiago zenbatu.

b) Titulazioak, prestakuntza eta informatikako ezagutzak. Gehienez ere 20 puntu emango zaizkie merezimendu hauei

b.1. Deitutako plazara sartzeko eskatzen dena baino goragoko prestakuntza akademikoko maila batean (1) dagokion titulua izateagatik, betiere titulazioak deitutako plazari lotutako lanpostuen eduki funtzionalarekin bat etorritz gero: 10 puntu.

A2: Unibertsitate-masterreko edota doktoregoko titulazioa edo baliokidea (MECES 3. eta 4. mailak)

b.2. Erakunde ofizialek (Herri Administrazioako Eskolak edo Institutuak, Herri Administrazioak, Unibertsitateak, Hezkuntza Ministerioaren edo autonomia-erkidegoetako hezkuntza-sailen mendeko ikastetxeak, Elkargo Profesionalak, Mutualitateak, Fundazioak, Elkarrekin, Federazioak) emandako edo homologatutako ikastaroak egiteagatik, ikastaro-ordu bakoitzeko 0,50 puntu, gehienez 20, betiere ikastaroak deitutako lanpostuen eduki funtzionalarekin bat etorritz gero.

b.3. Informatikako ezagutzak. Informatika-ezagutzak baloratuko dira, 20 puntu gehienez, eta 5 puntu emango dira ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarritzkoa.
- Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarritzkoa.
- Oinarritzko Internet.
- Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarritzkoa.
- Microsoft Outlook XP/2003/2010.
- Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.
- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.



- Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.
- Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.
- Internet aurreratua.

Moduluak gainditu izana IT Txartelaren ziurtapen-sistemaren bidez egiaztatuko da, oinarri orokorretan adierazitakoaren arabera. Modulu beraren bertsio ezberdinak egiaztatzen badira, horietako bat bakarrik baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua egiaztatzen dutenak oinarrizko maila egiaztatutzat joko dira.